

Aita Zakarias, mixiolari bikain



KARMELDAR.—Gure euskalerriko edozein txoko lur ona, gizon aundiak sortzeko. Zazpi lurralde onetan asko be asko izan dira —ta izango be bai— munduan zear ibilliz, ospeta izen aundia jodetsi dabena, bai jakitez bai egitez. Lur mamor ta oparotsuak berezkoa izan ekarria. Abadiño, Bizkai'ko erri txanbeliña, ez-togu onetan kaxkarrena; urteak joan urteak etorri, gizon aundiak emona bai da.

Ementxe, Abadiño'n, jaio zan gure Aita Zakarias be, 1887'ko zemen-diaren 5'an; Iburguren baserria bere sort-oe bigun, ta ango inguruak bere umetako jolas-leku. Amasei urteko, Larrea'n eskatzen dau karmeldar jantzia, 1904-IX-12'n profesia eginik. Eleiz-ikaskizunak Gazteizen, Begoña'n Iruña'n osotu ondoren, Erroma uri santuan mezakotu zan, 1912-I-4'an; urte aretan bertan India'ra bialdu eben nagusiak. Eta au izango zan beretzat —eta beste euskeldun askorentzat— bigarren ta betiko aberri; ementxe lan egingo dau zirt eta zart, Kristo'ren mastian, siñisbakoan adimentetan argia ta biotzetan sua biztu ta gartuz, Aren zeru-erreñua gero ta geiago zabaldu ta ugariturik. Arazo zoragarria, benetan!

MIXIOLARI.—Izen eder au ez daroa edonok. Orretarako lenen Jainkoaren dei ezta senti bear da biotz-barruan; eta, ondoren, guraso, erri ta abar itxirik, siñisbakoan artean

Ba-dogu karmeldarrok, au India'ko Malabar deritxon lurralde ezkututsuan, mixiño-sail eder bat. Aurten bete dira, ain zuzen be, irureun urte karmeldar mixiolariak ara eldu ziralara. Gizaldiak zear, beti izan dira Mixiño-lur orretan, Teresa Ama aundiaren sua biotzetan dabela, gogotsu bear egin dabena gizon Jainko ta arima-zaleak. Orrein arteko dogu Aita Zakarias, orain dirala 45 urte ara joana, ta aurtengo mayatzaren 23'garrenean, goizeko iru ta erdietan, Jaunak beragana dei egin dautsona. Mixiolari zintzo, trebe ta jator onek ba-dau nundik begiratu; baiña nik, lantxo onetan batez be, lau ertzetik begiz joko: *karmeldar, mixiolari, jakintzale, santu.*

joan ta lan egin. Aita Zakarias, egia eman, etzan baltz artean ibilli, areik jantzi, bateatu ta kristau egiten: bere bizitza guztian irakasten ekiña dogu; lenengo Puthempaly'n ta gero Always'e'n, beti irakasten, abade ta irakasle. Ta beste askoren autzera mendi ta ibai-ertzetan baltzak bateatzen ibilli ez arren, aren mixiño-lana jaugarria izan zan.

Malabar'ko apaiz ta abadeak oso maite eben. Zergaitik? Aita Zakarias euren ongille benetakoa zalako. Ikastetxeko gazteak apostolu ta mixiolari biurtzeko, antxe bertan *Sareñ Heart Conversion League* (Biotz Donearen Onbiurtze Bazkuna) sortu eban; bazkun au gaur be indartsu bizi da, ta 1920'garren urtean asita, iru illeroko argitara emoten ditu, angotarren, au da, malayalam izkuntzaz idatzia. Onen elburua: otoitz eta liburuaz angoak hibe onera ekarri. Baditu beste sail asko be, baiña beti elburu orren pean: Ikastetxeko apaizgai gazteak mixiolari biurtu, gero oneik euren errazako ta erritarrek zerurutzen alegindu daitezana.

JAKINTZALE.—Esan doguncz, India'ra eldu zanetik il arte guztian irakasle izan zan Aita Zakarias. Eta Ikastetxeetan, bai Puthempaly'n bai Always'e'n aginte ta erantzukizun aundia izan eban beti. Teologi-irakasle India'ra eldu zanetik, eta Hindu-jakintzetan 1918'garrendik; Pilosopu edo Jakintzaleen Buru 1913'tik 1934'tik 1944'ra; Buruzagi-ordezko 1945'tik 1955'ra, ta urte ontatik il arte Jakintza-Ikastetxe barriko Nagusi. Oso langillea genduan Aita karmeldar au; ta esku artean askotariko aregiñak erabilli arren, liburu uga-

ZEKENAK ERRUKIRIK EZ

Bein etxe batek su artu ta dana erro ta kiskaldu zan. Alboko etxean bizi zan gizon zeken diru-zale oietako bat. Ilunabarrean, neskamoari esan zion: —Gaur, aparia gertatzeko, surik egin bearrik ez daukazu. or aldameneko txingarretan egosiko dituzu erreaz asko gaberako dauzkagun babarrunak.

Zeken aundiarri etzitzion burua etorri, auzokari bere etxea eskertu ta apart on bat ematerik; bai, ordea, auzokien ezbehar aundiarri bere burua laguntzen. Zeken diru-zalearen burua laguntzen, oso gutxi baidira laguntzen arek, zorritarrez, jarrizkizile asko ditu diru-zalearen burua laguntzen. Zeken auzokari bere etxea eskertu ta apart on bat ematerik; bai, ordea, auzokien ezbehar aundiarri bere burua laguntzen. Zeken diru-zalearen burua laguntzen, oso gutxi baidira laguntzen arek, zorritarrez, jarrizkizile asko ditu diru-zalearen burua laguntzen.

riak ditu berak idatzita, ta or-emen-go aldizkarietan, Madras, Bombay ta Trichinopoly'koetan batez be, konta ezin ala artikulua argitara ebazan. Luna erreza ta naimen bizia, gure mixiolari idazlecan artean bera dogu ugari ta oparotsuen.

Baiña pilosopi-gaietan ba-da sail bat oso eder yakona: Hindu-jakintza. Sustraiz ikasi eban inditar pilosopi au, Eleizearen asmoai jarraiturik; au da, benetako mixiolariak edozein erritako kultur eta jakituria jaso ta batu egin bear dauala, arduratsu baizen maitekor. Ortan alegindu zan Aita Zakarias bere bizitza guztian. Inditar jakitunen artean, izen aundikoa dogu Aita beargin au.

SANTU.—Baiña gauza guztion gaiñetik, santutasunak halio. Eta orretan be etzan Aita Zakarias atzenengo izan. Gaztetatik gorputz eta arima Jaungoikoari eskiñi yakon, ta bizitzako arazo ta oinkada guztiak Jaunaren begipe bigunean egin ebazan. Etzan iñoiz be okertu ez ez-

JAINKOAREN BILLA

Naiz-ta mundu onetako arazo, jolas, atsegin eta zorakerietan larregi sarturik bizi, gizonak ba-daroa bere barruan olako kezka ta istillu, Jaungoikoagana bultz eragiten dautsona. Sarri gabiltz bizitza ontan, gau illunean bidea galduta dabillenaren antzera: buru-auste gogorrek ugari ta kontrako indar biziz inguratuta, nora-ezean aize-joka. Orduan argia nai dogu, ta urrekoagana goaz argi-billa; baiña au be, sarritan, geure antzera dabil bizitz-bide zear: auzi ta buru-austez beteoa, artega ta urduri.

Nerengana jo? Jaungoikoagana, nire aurretikoak egin daben lez.

kerrera ez eskumara, beti artez ta zuzen zerurako bidetik.

Biotz on ta borondate aundiko zenduan. Ta orrelakoak oi dabenez, Aita Zakarias'ek ez eban sekula eziñik izan bere bizitz-goraberetan; etzan iñoiz be atzeratu eragozpenak aurrean: erabagiak artu ta auziak askatzeko, bein edo bein burukatu bear ba'zan, or etzan jausita geratuko, zirti-zarta aurrera bidegin baiño.

Onezaz gaiñera, beti zeunkan ger-tu ta prest beartsuari, argalari, pekatari-ai laguntzeko: orretara joakon

biotza igarri barik lez. Ta onela biotz onak beti be atsegin yakuz-ta arima asko beragaantzen zituan. Gau te ta zar, barne-gauzetan kezkaz edo urdiri ebiltzan konta ezin-ala jo eben, aren argitasun billa. Egoki egiz deitzen eutsoen «pekatarien iges-leku».

Karmeldar ta lekaide zanez, alako Aita Bernardo Arginzoniz ta Aita Juan Bixente Zengotita mixiolari gartsuen oinkadetatik ibilli zan beti Gizon barrukoi ta otoitz-zale, bide-erosoak itxi ta latzetatik ibiltzen eki-ana; zintzo, jator, onbera, baikor ta errukitsu nun-nai ta noz-nai.

Jakitun antzera zabal ba'ebillen bera izena Malabar ta Indi osoan, er-gitxiago gero bere santu-ospea. Au-gaitik, il ondoren, gorpuari lurr-emon eutsoenean, millaka ta milla-ka ziran bertan apaiz-gai, apaiz, go-tzain ta lagun abar; labur esteko Aita Zakarias'en lagun ta esker-ono-ko guztiak.

Bego zeruan betiko atsedenean Jaunak bemoio betiko saria, ta be-teko argiak argi egin begio. Ta gu ga-biltzen bere irakaspide argitsu zear

AITA ONAINDIA

